

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bermeoko Udala**

Lehiaketa iragarkia: Bermeoko udal mugapean, Lamerako 1. eta 2. kioskoen aprobetxamendu pribatiborako emakida administratiboa ematea.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko urtarrilaren 19an hartutako erabakiarekin bat, iragarki honen bidez Bermeoko udal mugapean Lamerako 1 eta 2 kioskoen aprobetxamendu pribatiborako administrazio emakida esleitzeko baldintzak arautzen dituen deialdia egiten da

1. Erakunde esleitzaila

- a) *Erakundea:* Bermeoko Udala.
- b) *Espedientea izapidetzen duen bulegoa:* Idazkaritza Saila.
- c) *Espediente-zenbakia:* 2020/IDA_ERA_0061.

2. Dokumentazioa eta informazioa lortzea

- a) *Bulegoa:* Idazkaritza Saila.
- b) *Helbidea:* Irakaskintza 14-16.
- c) *Herria eta posta kodea:* Bermeo-48370.
- d) *Telefonoa:* 946 179 105.
- e) *Webgunea:* www.bermeo.eus

3. Lizitazioaren xedea

- a) *Mota:* jabari publikoa ematea.
- b) *Deskribapena:* Bermeoko udal mugapean, Lamerako 1 eta 2 kioskoen aprobetxamendu pribatiborako jabari publikoaren kontzesioa.
- c) *Iraupena:* Herri-erabilerarako emakidaren iraupena 15 urtekoa izango da, emakida formalizatzen den egunetik zenbatzen hasita, eta ezin izango da luzatu.

4. Izapideak eta prozedura

- a) *Tramitazioa:* arrunta.
- b) *Prozedura:* irekia.
- c) *Modua:* enkantea.
- d) *Lizitaziorako gutxienerako tasa:* 2.000,00 euro/urteko.

5. Bermeak

- a) *Behin-behineko bermea:* ez da eskatzen.
- b) *Behin betiko bermea:* esleipen-prezioaren %3

6. Eskaintzak aurkeztea

- a) *Aurkezteko azken eguna:* hilabete, dagokion iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.
- b) *Aurkeztu beharreko agiriak:* lizitatuzaileek bi gutun-azal edo artxibo elektronikotan aurkeztuko dituzte beren proposamenak, Administrazio Klausula Berezien Agiriako 11. klausulan adierazitako moduan eta edukiarekin.

c) *Aurkezteko modua:*

- Berhaz herritarrentzako arreta-bulegoan (Ertzilla kalea, 6-8, 48370-Bermeo).
- Bermeoko Udalaren egoitza elektronikoa:
<https://tramiteakonline.bermeokoudala.eus/egoitza/>
- Legez aurreikusitako gainerako moduetan, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera.

7. Eskaintzak irekitzea

- a) *Erakundea:* mahaia.
- b) *Eguna:* Bermeoko Udalaren web orrian eta iragarki-taulan adierazitako eguna eta ordua.

Bermeon, 2021eko urtarrilaren 19an. — Alkatea, Aritz Abaroa Cantuariense